

telebista ♦ irratia

‘Mundu Galdua’ telesaila astearte gauetan ETB1 katean

Conan Doyleen liburuan oinarritutako ekoizpena gaur hasiko da, 22:40an

Erredakzioa / Donostia

Euskal Telebistak telesail bat estreinatuko du gaur: **Mundu Galdua**. Azken teknologiak erabili dituzte telesaileko efektu berezietan, eta arduradunen ustetan *Jurassic Park* eta *Arka galdua*ren bila telesailen arteko nahasketa da.

SIR ARTHUR CONAN DOYLEK 1925ean *Lost World* liburua idatzi zuen eta eleberrin hori ardatz hartuta telesail bat errodatu dute Queenslanden, Australian.

Istorioaren argumentuari dagokionez, Edward Challenger irakasleak gidatutako espedizio talde britainiarren abenturak kontatzen dira. Denboran galdutako historiaurreko leku bateraino bidaia bat egin zuen urte batzuek lehenago Maple White izeneko batek, eta haren liburuxka besterik ez du espedizioak. Mundu Galdu hori aurkitzeko asmoarekin abiatuko da, hala ere, espedizioa: irakasle zahar bat Challengerren teorien aurka arituko dena, Herald Tribune Internacional egunkariako kazetari bat albistearen bila, abenturazale bat edozein arriskuri aurre egiteko asmotan dena, eta espedizioaren ongilea, gastu



ETB

Dinosauroak eta beste hainbat izaki harrigarri egongo dira ETB1 kateko ‘Mundu Galdua’ telesailean.

guztiei aurre egiteko prest dagoen emakumea espedizioan parte hartzen baldin badu.

Guztiak Amazoniako oihan ezezagun batera abiatuko dira. Denboran galdutako lautada batera iritsiko dira eta bertan izaki harrigarriak topatuko dituzte: mota guztietako dinosauroak, krokodilo erraldoiak eta simio basatiak.

Bestetik, lautada horretan Veronica aurkituko dute, hamaika urte dituenetik lurralde horretan bizi den neskata. Zanga tribuarekin harremanetan ere jarriko dira espedizioak.

Telesailaren arduradunek diote oso ekoizpen erakargarria dela. «Ez da egunero egiten telesail bat dinosauroekin, Amazoniarekin, harribitxiz betetako kobazuloekin

eta simioekin... hau da mundu galdu batekin. Edonoren ametsa da».

Richard Franklin da telesailaren zuzendaria eta aktore nagusiak honako hauek dira: Peter McCauley, Michael Sinelnikoff, William de Vry, William Snow, Rachel Blakely, Jennifer O'Dell eta Laura Vazquez. Astearte gauetan abentura iritsiko da ETB1era.

laburrean

Gidatzeko baimena ateratzeko materiala euskaraz aztergai ‘Bertatik Bertara’-n

Gaur gauean, 21:10ean, gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko materialari buruzko erreportaia eman go dute *Bertatik Bertara* saioan. Horrez gain, Iñaki Beraetxe aktorea hainbat gaietaz arituko da.

Mata-Hariri buruzko dokumentala Canal+ katean

Mata-Hari, la agente H-21 dokumentala eskainiko du gaur 15:30ean Canal + kateak. Bertan Mata-Harik Malasiako dantzak nola dantzatzen zituen azalduko da, emakume misteriotso gisa bizi izan zituen abenturez gain.

ELAko Jose Elorrieta Radio Euskadiko ‘Boulevard’ saioan

Radio Euskadiko *Boulevard* goizeko magazinean ELA sindikatuko idazkari nagusi Jose Elorrieta elkarriketatuko dute. Saio berean Slobodan Milosevic Yugoslaviako presidentearen inguruko solasaldi bat egongo da *En profundidad* atalean; mahainguru horretan Manu Leginechek, Gabirel Ezkurdiak eta Nenad Tijanicek hartuko dute parte.

Mugarik Gabeko Musikariak hizpide ‘Forum’ saioan

Dabid Barberok Mugarik Gabeko Musikariak erakundeko presidente Jesus Maria Alegria elkarriketatuko du gaur goizean, 10:00etan, ETB2ko *Forum* saioan. Alegria, arazo sozialak eta psikologikoak konpontzeko musika erabiltzeaz arituko da.

Famatu ugari ‘Lo que faltaba’-ko azken astean

Denboraldiko azken astea izango dute ETB2ko *LQF* magazinean eta platora gonbidatuko dituzte Ernesto Neyra, Ivonne Reyes...

‘Al filo de lo imposible’ saioak bi sari jaso ditu

■ Gipuzkoako Foru Aldundiak kiroltasunaren saria eman dio TVEko saioari

Erredakzioa / Donostia

ALDE BATETIK Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ematen duen kiroltasunaren saria TVEko *Al filo de lo imposible* saioari eman dio. Bestetik, saio berak abenturazko film onenaren saria jaso du Jaenen, Nazioarteko La Sierra de Segurako zine jaialdian.

Gipuzkoako Foru Aldun-

diak emandako saria *Al filo...*-koek Pakistango Nanga Parbat mendian egin zuten erreskate lanarengatik izan da. 7.000 metrora eskalatzaile kolonbiar batek istripu bat izan zuen, baina Jose Carlos Tamayok, Felix eta Alberto Inurrategik, eta Jon Lazkanok salbatu egin zuten. Gailurra aurrerago egin zuten lehenengo hiru-



EGUNKARIA

‘Al filo de lo imposible’ taldeko kide bat Nanga Parbat gailurrean.